

**I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA**

Arabako Foru Aldundia

**KULTURA ETA KIROL SAILA****127/2020 Foru Agindua, ekainaren 26koa, "Ignacio Aldecoa" ipuin sariketaren XLIX. ediziorako deialdia onesten duena**

Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailak, literatura arteak sustatzeko garatzen dituen ekintzen artean, egokia iritzi dio "Ignacio Aldecoa" XLIX. ipuinak sortzeko lehiaketarako deia egiteari.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

**XEDATZEN DUT**

Lehenengoa. Onestea "Ignacio Aldecoa" XLIX. ipuinak sortzeko lehiaketarako deialdia, bi hizkuntza modalitatetan: euskara eta gaztelania, bakoitza 6.000 euroz hornituta.

Bigarrena. Deialdi hau arautuko duten oinarriak onestea. Oinarri horiek espedienteari erantsita daude.

Hirugarrena. Gastu hau Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldirako gastu aurrekontuaren partida honen kontura egingo da: 70.1.05.73.02.226.09.05 (xedapen erreferentzia: 105.2266).

Laugarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 26a

*Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua*

**ANA M. DEL VAL SANCHO**

*Kultura zuzendaria*

**M<sup>a</sup> INMCULADA SÁNCHEZ ARBE**

**XLIX "Ignacio Aldecoa" ipuinak sortzeko lehiaketa**

Arabako Foru Aldundiak Ignacio Aldecoa Ipuin Lehiaketaren deialdia egin du, etenik gabe, 1972. urtetik.

COVID-19 pandemiak aurrekaririk gabeko osasun krisia sortu du mundu osoan 2020an, baita jarduera sektoreak gelditzearen ondoriozko krisi ekonomikoa ere; oraindik sektore horien behin betiko gizarte dimentsioak ezin ditugu zehaztu ere.

Osasun alarma globalaren aurrean hartu behar izan diren neurrien eragin negatiboak bizitza sozial eta ekonomikoko esparru guztietan eragiten badu ere, ondorioak bereziki kezagarriak dira kulturaren sektorean. Haren jarduerak gizartearen garapenean, dinamismoan eta nor-tasunean duen garrantziak neurri espezifikoak eta presazkoak hartzera behartzen gaitu, ahal den neurrian, sormen ehunari eusten zaiola ziurtatzeko eta haren jarraitutasuna eta jarduera bermatzeko.

Arabako Foru Aldundiak, euskal erakundeek eta Espainiako Gobernuak hainbat neurri hartu dituzte. Kultura eta Kirol Saila lanean ari da, ahal den neurrian, kulturaren sektoreak neurri horiek eskura izango dituela bermatzeko, eta, aldi berean, kultura sektorerako berariazko neurriak bultzatzen ari da, laguntza orokorrak osatzeko, jarduera horren hauskortasunari, garrantziari eta berezitasunari erreparatuta.

Testuinguru horretan, jarduera aste luzez geldiaraztearen ondorioz, ezin izan da aurreko urteetako baldintzekin Ignacio Aldecoa Ipuin Lehiaketa deitu. Hala ere, erakunde honen nahia da Arabako idazle handiaren oroimena ohoratzeke konpromisoari tinko eustea eta haren izena daraman sariarekin sorkuntza literarioa sustatzea, bereziki ipuin literarioa genero gisa babestuz.

Azkenik, aipatzekoa da Aldecoa sariketak, urteen poderioz, nazioarteko proiektio nabarmena lortu duela, batez ere gaztelaniaren modalitatean. Hala ere, 2020. urte honetan, eta soilik 2020. urteko deialdian, amaitutako mila ipuin inguru balioesteko aldi baterako ezintasunak bultzatuta, erakunde honek sorkuntza sustatzeko ordezko formula bati heldu behar izan dio. Formula horretan, gaztelaniako modalitatean Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeak sortzaileak bakarrik aurkeztu ahal dira, eta euskarazko modalitatea irekita egongo da sortzaileen bizilekua edozein dela ere. 2021. urtean, normaltasun baldintzetan, sariak nazioarteko izaera berreskuratuko du.

Horrela, Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailak "Ignacio Aldecoa" XLIX. ipuinak sortzeko sarirako deia egiten du.

#### OINARRIAK

1.- Sariketa honetan parte hartu ahal izango dute pertsona fisikoek, 16 urtetik gorakoak oinarriak ALHAOn argitara ematen direnean, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean bizi direnak gaztelaniaz idazteko modalitatean, eta edozein nazionalitate edo bizileku dutenak euskaraz idazteko modalitatean. Ezin izango dute parte hartu aurreko bi edizioetatik edozeinetan saria lortu dutenek.

2.- Bi hizkuntza modalitate ezarri dira: euskara eta gaztelania. Izangai bakoitza bi modalitate hauetako bakar batera baino ezin da aurkeztu.

3.- Sarituek ipuin bilduma bat egin beharko dute, gutxienez bi ipuinez osatua eta gehienezko ipuin kopururik zehaztu gabe. Bildumaren luzera 40 eta 70 orrialde artekoa izango da, inprenta tipografiarekin idatziak (arial 12 edo antzekoa) eta tarte bikoitzean. Lanak jatorrizkoak izango dira, inoiz argitaratu gabeak eta aurretik beste lehiaketa edo sariketa batean inolako saririk jaso gabeak.

4.- Dokumentazioa aurkeztea.

Lanak aurkezteko bi modalitate aurreikusten dira. Elektronikoki bidaliz gero, ez da zertan posta bidez bidali.

a) Posta bidez:

– Egin nahi duen ipuin bildumaren azalpena, 1 eta 2 orrialde artekoa, egoki irizitako ezau-garriak zehaztuz, hala nola argumentua, egitura, luzera, estiloa, etab.

– 5 eta 10 orrialde bitarteko lanaren lagina.

– Gutun azal bat itxita parte hartzailearen datuekin, hirugarren oinarria betetzen duela jasotzen duen zinpeko aitortpena eta sinadura, oinarri hauen bukaeran ageri den I. eranskinaren ereduaren arabera.

Saritutako hautagaiei dagozkien gutun azalak baino ez dira irekiko. Ordura arte Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailean zainduko dira, eta epaimahaia ezingo ditu eskuratu.

Bai egin beharreko ipuin bildumaren azalpenak, bai lanaren laginak eta gutun azalak ondo ikusteko moduan eduki behar dute egilearen izengoiti identifikatzaile bera. Beharrezkoa da datu horiek bidalitako dokumentu guztietan idaztea.

Hiru elementu horiek hona bidali beharko dira gutun azal batean sartuta:

“Ignacio Aldecoa” ipuin lehiaketa.

Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saila.

Probintzia plaza 5, 3. solairua.

01001 Gasteiz.

b) Posta elektronikoa:

Mezu elektroniko bat bidaliko da [ialdecoa@araba.eus](mailto:ialdecoa@araba.eus) helbidera, era honetan:

I. Mezuaren gaia: (Jarri hizkuntza)-(Jarri izengoitia).

Adibidez: Gaztelania-Bizenta.

II. Hiru fitxategi erantsi beharko dira:

– Egin nahi den ipuin bildumaren azalpena, 1 eta 2 orrialde artekoa, egoki irizitako ezau-garriak zehaztuz, hala nola argumentua, egitura, luzera, estiloa, etab. Eranskin horri eskema honi jarraituz jarriko zaio izena: AZALPENIA-IZENGOTIA.pdf.

Adibidea: Azalpena-Bizenta.pdf.

– Lanaren lagin bat, 15 eta 20 orrialde bitartekoa. Eranskin horri eskema honi jarraituz emango zaio izena LAGINA-IZENGOTIA.pdf izango da.

Adibidea: Lagina-Bizenta.pdf.

– Oinarri hauen I. eranskina datu pertsonalekin pdf formatuan, eta eranskin horri eskema honi jarraituz jarriko zaio izena: I. ERANSKINA-LANAREN IZENBURUA-IZENGOTIA.doc.

Adibidea: I eranskina-Bizenta.pdf.

Oinarri hauen bukaeran I. eranskinaren eredia ageri da.

Saritutako lanei dagozkien datu pertsonalak baino ez dira irekiko. Ordura arte Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailean zainduko dira, eta epaimahaiak ezingo ditu eskuratu.

Bidalitakoarekin bat ez datorren edozein bidalketa, bidaltzeko modalitatea gorabehera, baliogabe geldituko da oinarri hauek ez badira betetzen.

5.- Lanak aurkezteko epea 2020ko uztailaren 15ean bukatuko da, 23:59an (Espainiako penintsulako ordua). Data horren ostean, zigilu marka ikusita epe barruan postaz bidali zirela egiazta daitekeen dokumentazioa baino ez da onartuko.

Saila ez da izango gerta litezkeen jatorrizko lanen galeren edo narriaduren erantzule, ezta atzerapenena edo hirugarrenei egotz dakiekeen beste edozein inguruabarrena ere, lanen posta bidezko bidalketei edo bidalketa telematikoei eragiten dietenean.

6.- Saria 6.000 eurokoa izango da modalitate bakoitzerako. Zenbateko horri dagokion atxikipena egingo zaio.

7.- Era honetan ordainduko dira sariak:

– Ehuneko 70, “justifikatzeko aurrerakin” moduan, saridunak izendatzen dituen ebazpena onetsi ondoren.

– Gainerako ehuneko 30, ipuin bildumak entregatzeko garaian, horiek aurkezteko azken eguna 2020ko abenduaren 31 izanik.

8.- Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak izendatutako epaimahai kalifikatzaileak hartuko du erabakia, eta dagokion gutun azala irekita ezagutaraziko du.

Hara nortzuk izango diren epaimahaiko kide izendatzen da:

Katixa Agirre.

Alexander Gurrutxaga.

Txani Rodríguez.

Iban Zaldúa.

Epaimahaiko idazkari, Enrique Uriarte Gonzalo- Bilbao jardungo da, Kultura Ekintza Zerbitziburua.

Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 20.5. artikuluan xedatutakoa betez, sari hau emateko sortutako epaimahaiak emakumeen eta gizonen osaera orekatua izango du, eta eduki beharreko gaikuntza, gaitasuna eta prestakuntza edukiko dute kideek. Lege horren beraren arabera, ordezkaritza orekatua dela ulertuko da baldin eta lau kide baino gehiagoko epaimahai eta antzeko organoetan bi sexuek gutxienez ehuneko 40ko ordezkaritza badute; gainerakoetan, bi sexuak ordezkaturik badaude.

9.- Epaimahaiaren erabakiaren aurka ezin izango da gora jo. Erabakia epaimahaikideen gehiengo soilaz hartuko da, eta epaimahaiak izango du eztabaidetan sortzen diren gorabehera guztiak ebazteko ahalmena.

10.- Sariak eman gabe gelditi daitezke, epaimahaiak hala erabakitzen badu.

11.- Ipuin bildumak Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari entregatu beharko zaizkio, 2020ko abenduaren 31ra arteko epemugarekin, eta sail horrek izango ditu saritutako obren inprimatutako edizioen erabilera eta ustiapen eskubideak, bi urterako eta Espainiako lurralde eremuan.

Egileak hirugarren baten argitalpen akordioa badu, egileek aukeratutako argitalpenean argitaratu ahal izango dira lanak. Argitalpena bere beste ipuin batzuekin batera egin ahal izango da, egileak eta editoreak hala nahi izanez gero. Baina kasu horretan, berriazko baimena eskatu beharko zaio Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari, eta betiere lana saritua izan dela aipatu beharko da.

Arabako Foru Aldundiak saritutako ipuin bildumak argitaratu ahal izango ditu, epaimahaiak epaia eman eta hamabi hilabeteko epean; hala eginez gero, edizio kontratu bat sinatuko da. Lana argitaratzeak ez du eragingo inolako ordainketarik sariaz lortutakoaz gain.

12.- Saritu ez direnen dokumentazioa ez da itzuliko, eta epaimahaiak epaia eman eta hurrengo egunetik aurrera hogeita hamar eguneko epean suntsituko da; baita jaso diren gainerako fitxategi guztiak ere.


13.- Deialdi honetan parte hartzen dutenek deialdian adierazitako baldintzak onartzen dituzte eta berriaz men egiten diete baldintza horiei. Hain zuzen ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak (DBEO) xedatutakoari jarraituz, jakinarazten dizugu ezen jaso ditugun mezu elektronikoen helbideak Arabako Foru Aldundiko titulatasuneko "kultura deialdiak" izeneko fitxategian sartuko direla, eta hari emango zaion tratamendua da kultura jardueretan interesaturiko pertsonentzako informazioa eta komunikazioa kudeatzeko.

Aukeran izango da datuetan sartu, haien zuzendu, ezereztu, haien aurka egin, tratamendua mugatu, edo datuok transferitzeko eskubideak erabiltzea, zeinak aitortzen baititu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Arautegiak, eta, horretarako, Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo beharko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz -Araba-).

14.- Deialdian sortzen diren gai guztiak ebazteko eskumena Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailarena da, eta eskumen eskusiboa da, gainera.

Indarreko araudia aplikatuko da, eta, zehazki, gizonen eta emakumeen berdintasunaren arau esparrua, Euskal Autonomia Erkidegoko otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan jasotakoa.

15.- Gastu hau Arabako Foru Aldundiaren 2020ko gastu aurrekontuko “Kultura sorkuntza eta jarduerak sustatzea” 70.1.05.73.02.226.09.05 partidatik ordainduko da.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<h2>Literatura sariak Premios literarios</h2> <p>I. ERANSKINA • ANEXO I</p>	<b>2020</b>
--	---	-------------

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

\* Derrigorrezko datuak ■ Datos obligatorios

**LITERATURA LEHIAKETA ■ CONCURSO LITERARIO \*****Hizkuntza ■ Idioma \***

Ignacio Aldecoa ipuingintza saria / Premio de creación de cuentos Ignacio Aldecoa

Aukeratzea / Seleccionar

**Ezizena ■ Seudónimo \***

**DATU PERTSONALAK ■ DATOS PERSONALES**

<b>Izena ■ Nombre *</b>	
<b>Lehen deitura ■ Primer apellido *</b>	<b>Bigarren deitura ■ Segundo apellido</b>
<b>Identifikazio agiria ■ Tipo de documento identificativo</b>	
Aukeratzea / Seleccionar	
<b>Sexua ■ Sexo</b>	<b>Adina ■ Edad</b>
Aukeratzea / Seleccionar	<b>Posta elektronikoa ■ Correo electrónico *</b>
<b>Posta helbidea ■ Dirección postal *</b>	
<b>Telefono mugikorra ■ Teléfono móvil *</b>	<b>Beste telefono bat ■ Otro teléfono</b>

**ZINPEKO DEKLARAZIOA:**

- Honen bidez, adierazten dut goian adierazitako literatura lehiaketara izenordearekin aurkeztutako

izeneko proposamena originala eta argitaragabea dela, eta ez duela saririk jaso beste ezein lehiaketa edo sariketatan, aurkezpen egunera bitartean.

- Lehiaketan adierazitako baldintzak onartzen ditut
- Berariaz baimena ematen dut nire datu pertsonalak Arabako Foru Aldundiak trata ditzan, baldin eta sari hau kudeatzeko helburuz bada.

**DECLARACIÓN JURADA:**

- Por la presente, declaro que la propuesta presentada al concurso literario arriba indicado bajo el seudónimo


es original e inédita y no ha sido premiada, hasta la fecha de presentación, en ningún otro certamen o concurso.

- Acepto las condiciones que regulan esta convocatoria.
- Manifiesto mi consentimiento expreso para que Diputación Foral de Álava trate mis datos personales para la finalidad de gestionar este premio.

<b>Tokia ■ Lugar</b>
<input type="text"/>
<b>Data ■ Fecha</b>
<input type="text"/>

RE. 20/04

Orria ■ Hoja 1/2

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava	<b>Literatura Sariak</b> <b>Premios Literarios</b>	<b>2020</b>
---	---	-------------

**DATU PERTSONALEN BABESERAKO OHARRA:**

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua xedatutakoari jarraituz, jakinarazten dizugu eman dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko "Kultura deialdiak" izeneko fitxategian sartuko direla. Datu horien tratamendua Arabako Foru Aldundiak kultura ekitaldien berri jakin nahi duten pertsonentzako informazioa kudeatzeko eta zabaltzeko egiten da.

Bermatzen dugu datuak isilpean gordeko direla, eta ez zaizkiela jakinaraziko beste batzuei, legez ezarritako kasuez kanpo.

Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, DBEOK aitortzen dituenak, eta, horretarako, Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo beharko duzu (Probintzia plaza 5. z.b., 01001 PK, Gasteiz, Araba).

Argibide gehiago:

<http://www.araba.eus/web/LegezkoOharHedatua>

**AVISO DE PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES:**

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que usted nos facilita van a ser incluidos en el Fichero denominado "Convocatorias culturales" titularidad de Diputación Foral de Álava cuyos tratamientos se realizan para la gestión de información y comunicación dirigidas a personas interesadas en actividades culturales.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava (Plaza de la Provincia nº 5, CP 01001 Vitoria-Gasteiz, Álava).

Para más información:

<http://www.araba.eus/web/AvisoLegalAmpliado>.